




EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica



MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

Item liberatuak 2010



ISEI • IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

ELISKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



SUPERMERKATUKO ESKAINTZAK

Supermerkatu bateko iragarkietan hurrengo produktu hauek ageri dira, prezio eta eskaintza bereziekin.

<p>Lupina 6 € /unitate</p>	<p>Kakahueteak 80 zentimo</p>	<p>1,20 € 250 g</p>	<p>2,45 € 500 g</p>
<p>Urraburua 4 € /unitate</p>	<p>Marmelada 1,50 € /unitate</p>	<p>6 lata 2,05 €</p>	<p>12 lata 4,05 €</p> <p>oferta</p>

01

Landerrek kakahueteak erosi ditu. 8 € ordaindu baditu, zenbat poltsa erosi ditu?

- A. 8 pakete.
- B. 12 pakete.
- C. 16 pakete.
- D. 20 pakete.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 4. Problemak ebaztea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Hainbat problema proposatzea eta ebaztea, gehienez zenbaki arrunteko bi eragiketa aplikatuta, ebazpenean zenbait estrategia eta prozedura erabilia, kalkulagailua barne; eta egindako prozesua ahoz eta idatziz adieraztea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Bi eragiketako problemak (ahoz, grafikoen bidez eta idatziz emandakoak) ebazten ditu, neurri-errepiketako eta eskaletako biderketa-egoerei buruzkoak.
- **RESPUESTA CORRECTA:** D. 20 pakete.
- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
MAILA AURRERATUA

02

Amaiak 4 urraburu eta 6 lupina erosi ditu. Zenbat ordaindu du?

- A. 24 €.
- B. 36 €.
- C. 48 €.
- D. 52 €.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 4. Problemak ebaztea
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Hainbat problema proposatzea eta ebaztea, gehienez zenbaki arrunteko bi eragiketa aplikatuta, ebazpenean zenbait estrategia eta prozedura erabilia, kalkulagailua barne; eta egindako prozesua ahoz eta idatziz adieraztea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Bi eragiketako problemak (ahoz, grafikoen bidez eta idatziz emandakoak) ebazten ditu, neurri-errepiketako eta eskaletako biderketa-egoerei buruzkoak.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B. 36 €
- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
MAILA AURRERATUA



EROSKETETAN

Aztertu erakusleiho honetako produktuak eta prezioak.



32 €



18 €



16 €



64 €



36 €



50 €

03

Txarok bozgorailuak erosi ditu eta oraindik 18 € geratu zaizkio.

Zenbat diru zeukan bozgorailuak erosi aurretik?
Erantzun zuzena aukeratu.

- A. 11 €.
- B. 18 €.
- C. 36 €.
- D. 54 €.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 4. Problema ebaztea

- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Hainbat problema proposatzea eta ebaztea, gehienez zenbaki arrunteko bi eragiketa aplikatuta, ebazpenean zenbait estrategia eta prozedura erabilia, kalkulagailua barne; eta egindako prozesua ahoz eta idatziz adieraztea.

- **ITEMAREN HELBURUA:** Batuketa-egoerei buruzko eragiketa bateko truke-problema ebazten ditu.

- **ERANTZUN ZUZENA:** D. 54 €.

- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
ERDI-MAILA

04

Dendako biltegian dituzten 75 lanparak apaletan ipini nahi dituzte. Apal bakoitzean 40 lanpara sartzen dira.

Zenbat apal behar dituzte?

- A. Apal 1.
- B. 2 apal.
- C. 3 apal.
- D. 4 apal.


ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Kopurua.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 2. Zenbaki arruntekin kalkuluak egitea, oinarritzko eragiketen esanahia eta propietateak erabilia eta kalkulu-mota egokiena zein den segurtasun osoz aplikatuta.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Zenbakizko eta logikako arrazoinamenduko problemak formulatzen eta ebazten ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B. 2 apal.
- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
HASIERAKO MAILA




UDAL POLIKIROLDEGIA

Aitorren herrian udal polikiroldegi berria eraiki dute



05

Aitorrek lorategi bat ikusi du, eta lorategiaren diseinua geoplano batean erreproduzitu du. Geoplanoko laukiaren alde bakoitza 10 m luze baldin bada, zein izango da lorategiaren perimetroa?



- A. 160 m.
- B. 200 m.
- C. 220 m.
- D. 240 m.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Espazioa eta Forma

- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Forma eta erlazio geometrikoen ezaguera erabiltzea, eguneroko egoerak interpretatzeko, deskribatzeko eta ebazteko.


- **ITEMAREN HELBURUA:** Formen propietateak kontuan hartzen ditu, eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko eta horiei aurre egiteko.

- **ERANTZUN ZUZENA:** B. 200 m

- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
MAILA AURRERATUA

06

Igerilekuaren forma aztertu eta hurrengo baieztapenak EGIAZKOAK ala GEZURREZKOAK diren adierazi:



Baieztapena	EGIA	GEZURRA
A. Lau erpin ditu.		
B. Laukizuzen forma du.		
C. Lau angelu berdin ditu.		
D. Lau aldeak berdinak ditu.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Espazioa eta Forma
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Forma eta erlazio geometrikoen ezaguera erabiltzea, eguneroko egoerak interpretatzeko, deskribatzeko eta ebazteko.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Irudi lauak eta espazioan daudenak, eta horien oinarritzko propietateak eta erlazioak identifikatzen eta ikasi ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. Egia / B. Egia / C. Egia / D. Gezurra.
- **KONPETENTZIA MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKO 2010ean:**
HASIERAKO MAILA